

HIZKUNTZA-ALDAKORTASUNA EUSKARAN. NAFARROA IPAR-MENDEBALDEKO BI UDALERRITAN EGINDAKO AZTERKETA

Tesiaren egilea: Oihana Lujanbio Begiristain

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Tesi-zuzendaria: Jose Ignacio Hualde eta Koldo Zuazo

Tesiaren laburpena:

Zerk eragiten du hizkuntzaren aldaketa? Zergatik eusten diete leku batzuetan gehiago bertako ezaugarri linguistikoei eta beste batzuetan gutxiago? Euskara batuak zenbateko eragina du gure eguneroko hizketan? Horrelako galderekin ekin genion tesi-lan honi, bizi-bizirik dauden gure herrietako hizkerak ikergai hartuta.

Gainerako hizkuntzak bezala, euskara etengabeko doitze- eta eraldatze-prozesuan bizi da, hizkuntzaren barrengo nahiz kanpoko indarren eraginez. Euskal hizkerak baturantz aldatzen ari direla dirudi, baina euskal hizkera guztiek ez dituzte joera berberak erakusten. Tesi-lan honetan joera diferente horiek aztertu nahi izan dira, aldaketaren ulermenean pauso bat eman nahian. Horretarako, ezaugarri zehatz batzuk biltzen dituzten bi udalerrri hartu ditugu aztergai: Goizueta eta Araitz-Betelu. Biak dira euskaldunak, euskararen ezagutza handikoak, eta antzeko biztanle kopurua dute. Eta biek, Nafarroa ipar-mendebaldean egonda, erdialdeko euskararekin harreman handia dute. Aldi berean, herriok desberdinak dira egoera demografikoari dagokionez eta norberaren hizkeraren berezitasunaz oharmen desberdina dutela uste dugu. Horren arabera, Goizueta Araitz-Betelu baino gordetzailleago izatea izan da hipotesia.

Tesi honetan soziolinguistika bariasionistaren metodologia ekarri da euskal hizkuntzalaritzaren arlora, azken urteotan beste ikertzaile batzuek egin bezala (Haddican, 2005; Aurrekoetxea, 2008; besteren artean). Metodologia honek aldaketa zehaztasunean aztertzen laguntzen du, bere norabidea eta indarra argiago ikusten. Tresna hauen bidez gaur egungo euskararen dinamika hobeki ulertzea izan da helburua.

Emitza eta ondorioetan gizarte-eragileei erreparatuta, espero bezala, adinekoak, ikasketa-maila apalekoak eta erdialdekoekin harreman gutxi izan dutenak (Goizuetan) eta Goierrikoak (Araitz-Betelun) izan dira gordetzailleenak, eta gazteak, ikasketa-maila altukoak eta erdialdekoekin harreman-maila altua izan dutenak (Goizuetan) eta Beierrikoak (Araitz-Betelun) berritzaileen. Generoari dagokionez, ez dugu joera orokorrik aurkitu. Zerbait azpimarratzekotan, batzuetan emakumezkoa

gordetzaileago agertu izana da, hori ez baita ohiko emaitza mendebaldeko gizar-teetan.

Hizkuntza-aldagaiei dagokienez, auresandako joerak erakutsi dituzte datuek, orokorrean. Alegia, hiztuna zenbat eta gazteago izan, orduan eta gehiago erabili ditu aldaera berriak. Joera horietatik aldendu diren gertaeren artean dugu Araitz-Beteluko hizkuntza-aldagai batzuetan helduak berritzaileago agertu izana, edo gazteek berriro nafarrerarako joera hartu izana (beharbada, ikasketak Leitzan egitearen ondorioz). Azpimarratzekoa da, era berean, hizkuntza-aldagai batzuen erabilera erritmo bizian aldatu den bitartean (*o* eta *-ti* aldaerak Araitz-Betelun eta *gunun*, *arunt*, *benpe* / *bede*, *-ko(t)z* eta *eskuara* Goizuetan), besteetan bertako aldaera mantentzeko joera agertu dela belaunaldiz belaunaldi.